

EUDELen BATZORDE ERAGILEAREN JARRERA TOKI ADMINISTRAZIOAREN ARRAZIONALIZAZIO ETA IRAUNKORTASUNERAKO LEGE PROIEKTUAREN AURREAN

EUDELen Batzorde Eragileak interes eta kezka handiz jarraitu dio Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako Lege Proiektua osatzeko prozesu luzeari.

Uztailaren 26ko Ministro Kontseiluan onartu ondoren, 2013ko irailaren 6ko Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialak (58-1. zk.) Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako Lege Proiektua (aurrerantzean, TAAILP) argitaratu zuen, eta horrela jarri zen abian parlamentuko tramitazioa, datozen hilabeteetan Proiektua Lege gisa onartu dadin.

Proiektuaren testu berriaren argitan, EUDELen Batzorde Eragileak honako balorazio hau egin du, hiru puntu hauek oinarri hartuta:

- Erreformak eraso egiten dio udal autonomiari.
- Erreformak euskal autogobernua urratzen du.
- Erreformak ez ditu aintzat hartzen foru erregimenaren ondoriozko eskumenak.

I.- Erreformak eraso egiten dio Euskal Udalen autonomiari (eta autogobernuari)

1.- Txertatutako aldaketak gorabehera, **Lege Proiektuak udal autonomia ahultzen duen eredu bat ezartzen du "udal administrazioaren" alorrean**, eta eduki gabe uzten du, kasu askotan. Udal autogobernuaren indarrari dagokion ideia desegiten ari da eta ez ditu islatzen ez Toki Autonomiaren Europar Gutunaren (aurrerantzean, TAEG) printzipioak ez haren filosofia.

2.- EUDELek berretsi egin nahi du TAEGen bildutako printzipioekin hartutako konpromisoa. Euskadiko Udalen Elkarteak oso kontuan hartu izan du, beti, konpromiso hori bere jardunean, eta, udal autonomiarentzat hain larria den egoera honetan, garrantzi handikoa da berrestea.

3.- EUDELek adierazi nahi du ez dagoela inondik inora ados udal eredu guztiz administratibistaren eta zerbitzu-ematearen alde egiten duen proiektuaren ereduarekin, herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematera bideratutako botere politikoaren jarduna bermatzen duen udal ereduaren aurrez aurrekoa baita. Hori bereziki aipagarria da 20.000 biztanletik beherako udaletan, izan ere, horietan udal zerbitzuak **kostu eraginkorrean** bermatzeko kezkaren ondorioz, udal horiek eskumenik gabe gelditzen dira Diputazioen mesedetan. Ildo horretatik, orain aurreikusten badu ere beharrezkoa dela 20.000 biztanletik beherako udalen "adostasuna", ez du udalen autonomia asetzen, **Ministerioari uzten baitio azken hitza udal zerbitzuen "kostu eraginkorraren" bidezko "aurrezpena" bermatzeko zer formula aplikatuko den erabakitzeko orduan.**

4.- Irizpide ekonomizistak nabarmentzen dira erakundearen erreformaren gaintik eta zerbitzuen kostu eraginkorra mugatzeak funtsezko protagonismoa du horien kudeaketaren diseinuan; horrez gainera, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren Agindu huts batek ezarritako irizpide orokorren bitartez arautu nahi da. Gainera, kostu eraginkorraren irizpide horren erabileraren bitartez, ahuldu egiten dira udal agintzaileek herritarrei bideratutako zerbitzuen kalitatea diseinatzeko dituzten aukera politikoak, eta, ondorioz, baita herritarrekin hitzartzen duten herri eredia ere, zalantzan jartzen baita konparazioaren bitartez. Beste alde batetik, kostu eraginkorraren inperioak bultzatu egiten du udal zerbitzu publikoen kudeaketa pribatizatzekeo prozesua.

5.- EUEDElek, halaber, Lege Proiektu honek **udal fusioen** alorrean txertatu dituen neurrien berri eman nahi du. Estatuaren oinarrizko araudi horrek legegile autonomikoaren konfigurazio eremua bete nahi du, edo, Euskadiren kasuan, foru araudiaren ahalmena; era horretara, **murriztu egiten ditu Autonomia Estatutuak berak alor horretan onartzen dituen eskumenak**. Fusioak sustatzeko neurri horietako askok, gainera, eragina dute Ekonomia Hitzarmenaren erregimenaren arabera euskal erakunde eskumendunei dagozkien alor ekonomiko-finantzarioetan. Beste batzuek, berriz, bete-betean eragiten diote udal autonomiaren berme instituzionalari, fusio hitzarmena onartzeko dagozkien udalen gehiengo soila nahikoa izatea bilatzen baitu.

6.- **Europar Batasuneko hainbat herrialdetan udal gobernuari dagokionez abian jarritako beste erreforma batzuetan ez bezala, horietan udal autonomia (hau da, udalen eskumenak) indartzea baita ikuspegi nagusia, Gobernu zentralak babesten duen udal erreforma kontrako bidetik doa:** udalei "kendu" egin nahi die zenbait zerbitzu emateko ahalmena eta errotik "murriztu" nahi ditu orain arte izandako eskumen gehienak.

7.- EUEDElek berriaz gaitzesten du Lege Proiektuak udal eskumenei ematen dien tratamendua ("probintzien" eskumenak ez bezala, "itxiztat" edo "tasatutzat" hartzen baititu); bestalde, honako eskumen horietako zenbaitetan zehaztasunik eza da nagusi, esate baterako, haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikastetxe publikoetarako eraikinak –udala titular dutenak– gordetzea, mantentze lanak egitea eta zaintzea, zeinak, 15. Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, udalen berezko eskumenen zerrendan ez sartzea jotzen duen egokitza. Eta orobat gaitzesten du **"berezkoak ez" diren eskumenen ezaugarriak**, izan ere, Proiektuaren eskema horrek guztiak CEALen printzipioei eragiten die, zuzen-zuzenean. Euskadiko udalek gaur egun betetzen dituzten udal eskumenak "berezkoak" edo "legearekin bat egiten" dutenak dira. **Zenbait kasutan "berezkoak ez" diren eskumenak desagerrarazteko asmo horren helburua argia da: udal autogobernua gutxieneko mailara eramatea eta euskal herritarrek udaletatik jasotzen dituzten sariak nabarmen mugatzea.** Ildo beretik doaz, halaber, bertsio horretan sendotasuna hartzen duten hainbat neurri, hala nola, udalen autoantolamendurako mugak, toki sektore publikoko langileen soldaten kontrola eta behin-behineko langileak edo zuzendaritzako langileak kontratatzekeo murriztapenak.

8.- Erregimen komunek probintzia diputazioak sendotzekeo behin eta berriz azaldutako asmoa ezin eraman liteke zehaztasunik gabe euskal instituzioen sistemara, eta, bertan, **Foru mailakoek oso bestelako zeregina betetzen dute.** Erakunde horiek sendotzekeo asmo horretan, hainbat eskumen eman zaizkie, bereziki 20.000 biztanletik beherako udalei lotutakoak, eta ez da ahaztu behar era horretakoak direla Euskadiko udal gehienak –gauza jakina denez–. **Euskal Udal gehien-gehienei beren eskumenak**

kendu eta Foru Aldundiei emanaz gero, subsidiariorotasun printzipioari ere eragingo zaio, udalak baitira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak.

II.- Erreformak kalte egiten dio euskal autogobernuari

1.- EUDEL ez dator inondik ere bat, halaber, TAAILPek, Toki Erregimeneko Oinarrien Legearen erreformaren bitartez, udal eskumen "tasatuen" sistema ezartzeko agertu duen asmoarekin, eta orobat ez dator bat euskal legegileari –gai jakin batean dituen eskumenak gauzatuz– Euskadiko udalek alor horietan zer eskuduntza izango duten mugatu ahal izateko eragozpenak jartzearekin. **Konponbide hori euskal autogobernuaren kontrako erasotzat har liteke, eta ez-konstituzionala izatearen tankera ere har dezake.** Oinarrizko legeak, kasu honetan, ez du garapenik onartzen: oinarrizko legelariak ez du gutxienekorik finkatzen, gehienezkoak baino. Bestalde, salatu liteke eskumen probintzialeskiko tratamendua ez dela berdina, izan ere, legegile autonomikoak handitu egin ditzake probintzien erregimen orokorreko eskumenak, eta ezin du gauza bera egin udal mailakoekin, nahiz eta udalek zuzeneko legezkoatasun demokratikoa izan.

2.- Udal eskumenen murrizketa gogor horretan kezkarriena ez da euskal autogobernuari ezartzen zaion muga zorrotza, bai foru mailakoa bai udal mailakoa, baizik eta bereziki kezkarria da horrek Euskadiko udalek herritarrei egunero ematen dizkieten zerbitzu publikoetan izango duen eragin zuzena. **Hori bereziki nabarmena da zenbait alorretan (gizarte-zerbitzuetan, esate baterako), baina "berezkoak ez" diren eskumenak murrizteko edo ezabatzeke saio horrek eragina izan dezake, halaber, Euskadiko udalek ematen dituzten zerbitzu publikoetan, eta jarraipenik gabe utz ditzake, hainbat hamarkadatan kalitate handiz eman badira ere.**

III.- Udal erreformak ez ditu aintzat hartu foru erregimenaren ondoriozko eskumenak

1.- Euskal erakundeek berezko antolamenduaren eta foru erregimenari loturiko eskumenen ondoriozko berezitasuna (Ekonomia Hitzarmena, udalez gairdiko erakundeak, etab.) ez da inondik ere aintzat hartu azken urtean legearen aurreproiekturako egindako zirriborroetan. **TAAILPek klausula orokor bat du foru erregimena babesteko** (lehenengo xedapen gehigarria). Dena dela, klausula horrek ez du asetzen euskal erakundeek Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren, Autonomia Estatutuaren eta Hitzarmenaren Legearen arabera dituzten berezitasunen ondoriozko aukera.

2.- EUDELe adierazi nahi du babes klausula horrek ez dituela inondik inora asetzen **erreforma horretan jarritako itxaropenak**, izan ere, ez ditu errespetatzen eskumenen eta ekonomia eta finantzaren alorreko berezitasunak, kontuan hartuta zer garrantzi duen Euskadiko udalen kokapenak Euskadiko egitura politikoan eta erakunde mailakoan.

3.- Alabaina, are larriagoa da udalerrri batek, egoeraren ondoriozko arrazoiak direla-eta, aurrekontuen egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari dagokionez legean aurreikusten diren helburuak betetzen ez baditu, **nahitaez "egiturazko" neurriak** ("berezkoak" ez diren eskumenak ezeztatzea, zerbitzuak

batera ematea, etab.), eta baita "existentzialak" ere (auzoko udal batekin fusionatzeko proposamena), **txertatzen dituen plan ekonomiko-finantzario bat osatu behar izatea.**

Ekonomia Hitzarmenaren eduki materiala eta erregimen ekonomiko-finantzarioko eskumenekin duen lotura estua kontuan hartuta, Plan ekonomiko-finantzario horien edukia horretan **eskumena duten euskal erakundeek** arautu beharko lukete (kasu honetan, toki erakundeen Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Foru Arauek).

4.- Are gehiago, erreforma horren ardatz nagusietako bat aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna denez, EUDELek eskatzen du, alor horretan euskal erakundeek dituzten berezko eskumenak kontuan hartuta, **forua babesteko klausula bat jasotzea, zeinetan euskal erakundeei emango zaizkien aurreproiektuak Ogasun eta Herri Administrazioaren Ministerioari gordetzen dizkion ahalmenak, tokiko zerbitzu publikoak emateari eta zerbitzuen kostu eraginkorra kalkulatzeko irizpideei dagokionez.** Proiektuak aldundiei ematen die tokiko zerbitzu publikoen koordinaziorako zeregina, eta horrek zuzenean erasotzen dio udalen autonomiari, eta, Euskadiko udalen kasuan, udalek beraiek eman behar dituzte, elkartasun formulen bitartez (mankomunitateak eta partzuergoak) eman behar dituzte, eta kontuan hartu behar da horiek oso emaitza onak eman dituztela.

5.- Edonola ere, Ekonomia Hitzarmenaren ondoriozko udalen finantzaketarako erregimen bereziaren ondorioz, Proiektuaren testuan finantzaketa erregimen orokorrari egiten zaizkion erreferentzia ugariak modulatu egin behar dira; beraz, **ezin aplikatu daitezke** euskal erakundeen errealitatean. Bestalde, erreforma honek zaildu egiten du Euskadiko Udal Lege baten diseinua.

Bilbon, 2013ko irailaren 23an.